

Legazpiko Agenda 21eko Foroaren akta

2017ko azaroaren 9an, 18:00etatik 20:00etara, Legazpiko Kultur Etxean



1. AURREKARIAK ETA TESTUINGURUA

Gaur, azaroaren 9an, Legazpiko Agenda 21eko Foroaren tailer berria egin dugu. Legazpiko **60 herritarrek** hartu dute bileran parte eta, bertan, Legazpiko **mugikortasun iraunkorraren plana gaurkotzeari** buruz hitz egin dugu.

Agenda 21eko Foroaren saio honekin ekarpen berria egin zaio Legazpiko Udala, Haizea-Deloitte taldearen laguntzarekin, bideratzen ari den lanari.

Zehatz-mehatz:

- 2017ko¹ apirilaren 6ko tailerrean, Haizea-Deloitte talde teknikoak Legazpiko mugikortasunari buruz egin duen diagnostikoa aurkeztu genuen eta egindako lana alderatu eta aberastu genuen.
- 2017ko¹ uztailaren 6ko tailerrean, aipatu talde teknikoak oinezkoen eta bizikletarien mugikortasunari, trafikoaren antolamenduari eta aparkalekuei buruz Plan berrirako proposatutako ekintza eta neurri zehatzak ezagutu genituen. Ekintzen multzoa aztertzeak eta eztabaidatzeak egokitzat jotako neurriak eta zalantzazko eta azertu beharreko neurriak identifikatzea ahalbidetu gintuen.

¹ Zehaztasun gehiago nahi izanez gero, kontsultatu dagokion akta Udalaren web orrian:
<http://www.legazpi.eus/es/bizi-2/desarrollo-sostenible/el-foro?id=726>

2. GAURKO HELBURUA

Uztaileko tailerraren ondoren, udal gobernu taldea Planaren lehenengo zirriborroak zalantza gehien sortu zituen neurriak sakontzen saiatu da.

Gaur, **gobernu taldeak Planaren alderdi kritikoenetarako egin dituen proposamenak ezagutu eta kontrastatu** nahi izan ditugu. Koldobike Olabide alkateak aurkeztu ditu proposamenak.

Ekarpen hori politikoki beste udal taldeekin egin den kontrasteari eta Arantzazu auzoko haurreskolan azaroaren 7an egin zen bilera irekian jasotakoari gehitu behar zaie.

3. PARTE HARTU DUTEN PERTSONAK

Gaiak interesa pizten du eta, ondorioz, kultur etxeko aretoan **60 pertsona** elkartu dira eta horiek biziki hartu dute parte tailerlean. Hona hemen izen-abizenak:

Herritarrak:

Floren Gutierrez – Ana Mari Larrea – Aitor Belastegi – Jaime de la Ossa – Eduardo Camara – Manuel Fernandez (Nagusilan) – Andoni Zabaleta – Lander Zabaleta – Jose Luis Segura Jauregi – Blanca Lecea – Pablo Lombide – Ane Lombide – Rosa Mari Orve – Elena Urcelay – Kontxi Zaldua – Ibon Serna – Mikel Uranga – Jaione Agirre – M^a Angeles Urcelay – Pilar Makibar – Charo Ruiz de Gaona – Jesus Mari Zabala – Luis Viana – Jose Javier Aristu – Miguel Angel Zabaleta – Cesareo de la Presa – Lina Etxaniz – Gladys Olabide – Angel Mari Campos Marcos – Bakarne Barandiaran – M^a Jose Lozano – Beñat Aierbe – Juan Carlos Odria – Jose Luis Fernández – Mikel Alzelai – Gurutz Beitia – M^a Eli Alustiza – Rafael Gomez (Buskabaso) – Abel Araguzo – Maite Odriozola (Haztegi Ikastola) – Santiago Fernandez – Montse Vallejo – Begoña Mujika – Lourdes Etxaniz – Mariaje Perez de Arenaza – Sole Alostegi Zaldua – Olatz Urrestilla – María Angeles Zabaleta – Patxi Ariztimuño – Mari Cruz Lizarazu – Pedro – Alfredo Renedo – Juan Karlos Agirre.

Udal arduradunak eta teknikariak:

Koldobike Olabide (alkatea) – Iñigo Imaz (zinegotzia) – Javier Iraeta (zinegotzia) – Raket Puente (zinegotzia) – Eric Galvez (zinegotzia) – Oscar Valbuena (zinegotzia) – Fernando Agirre (udaltzainburua) – Inma Hernandez (industria, merkataritza, turismo eta ingurumen teknikaria).

Laguntzaile teknikoak:

Iciar Montejo eta Zorione Aierbe, Prometea, dinamizazio-lanetan.

Guztiori, **mila esker** etorri zaretelako, zuen iritzia partekatu duzuelako eta antzemandako alderdi korapilatsuenetarako aukera hobegoak bilatzen lagundu duzuelako. Ikuskerak batzea aberasgarria da beti!



4. EDUKIAK ETA EMAITZAK

Metodoari eta **bileran jarraituko urratsei** dagokienez:

- **Uztaileko Foroaren tailerrean identifikatu ziren alderdi gatazkatsuenen gainean gobernu taldeak egindako irakurketa eta proposamenak** aurkeztetik abiatu gara. Honela ordenatu dira alderdi horiak: oinezkoen mugikortasuna, bizikletarien mugikortasuna, trafikoaren antolamendua eta aparkalekuak.
Era berean **galdetegi** bat eman diogu tailerrean parte hartu duen pertsona bakoitzari; bertan, gobernu taldearen proposamenarekin ados dagoen, ados ez dagoen edo zalantzan dagoen adierazi behar zuen. Guztira betetako 52 galdetegi jaso ditugu eta akta honetan jaso dira emaitzak.
- Eta aurkezpena egin ondoren, parte hartzaileekin **hitz egiteko eta eztabaidatzeko denbora** utzi da.

Segidan, emaitza nagusiak jasoko dira, urratsez urrats.

Udal gobernu taldeak “alderdi kritikoetarako” aurkeztu duen proposamenaren aurkezpena eta kontrastea

Ondorengo tauletan, honakoak jasotzen dira garraio-mota bakoitzerako:

- Uztaileko tailerrean Agenda 21eko Foroak hasierako proposamen teknikoan antzeman dituen alderdi kritikoak –ezkerreko zutabea– eta gobernu taldeak bere proposamenean landu dituenak.
- Udal gobernu taldeak gaur aurkeztu duen proposamena –erdiko zutabea–.
- Eta gobernu taldearen proposamenarekiko adostasun-maila azalduz parte hartzaileek bete dituzten galdetegiaren emaitza kuantitatiboa –berdez markatu dira norberak egindako iruzkinak eta jasotako oharrak–.



A. OINEZKOEN MUGIKORTASUNA

Haizea-Deloitte taldearen Hasierako proposamen teknikoa eta Foroak berrikustea beharrezkotzat jotzen dituen alderdi kritikoak	Gaur aurkeztutako udal gobernu taldearen proposamena	Foroak tailerrean emandako iritzia: Ados daude udal gobernu taldearen proposamenarekin edo ideiarekin ² ?
1. Oinezkoen ibilbidea: elizaren eta Euskadiko kutzaren arteko tartea, bertan garraio-mota asko biltzen direlako.	<ul style="list-style-type: none"> - Galtzadan, bidegorriaren bi tarte elkartuko duen zatia pintatzea. - Arazoak daude, zirkulazioaren kontrako noranzkoan joango litzatekeen bidegorria jartzeko. - Oinezkoek lehentasuna dutela adierazko duten seinaleak hobetzea. - Bizikletan eta patinetan dabilzanak sensibilizatzeko kanpainak egitea. 	<p>% 60, Bai % 11, Ez % 21, zalantzan % 8, ez du erantzun</p> <p>Oharrak: [Ez] – Bidegorria Kale Nagusitik [Zalantzan] – Arriskutsua kontrako noranzkoan. – Goranzkoa markatu bakarrik eta beheranzkoa partekatua.</p>
2. Ikastola aldean (haurreskola) oso estua da espaloia.	<ul style="list-style-type: none"> - Pibota jarrita trafikoa murrizteak eremua oinezkoentzako izatea ahalbidetuko du (ikus 8. puntua). - Hori egin aurretik, irtenbide bat bilatu beharko da kentzen diren 34 aparkalekuentzako. - Haurreskolaren sarrera eraikinaren albo batean, igogailuaren ondoan, jartzea proposatu da. 	<p>% 71, Bai % 11, Ez % 10, zalantzan % 8, ez du erantzun</p> <p>Oharrak:: [Ez] – aparkaleku falta</p>
3. San Juan auzoko haurreskolaren sarreran pasabide estua: espaloia zabaldu.	<ul style="list-style-type: none"> - Oso ondo baloratu da espaloia zabaltea baina ondo aztertu behar da gaia, horrek 12 aparkaleku kentzea dakarrelako. - Bateria aparkatzeko aukera aztertea proposatzen dugu. 	<p>% 69, Bai % 8, Ez % 13, zalantzan % 10, ez du erantzun</p> <p>Oharrak: [Ez]- horma bota eta berria egin.</p>

² Jaso diren betetako 52 galdetegietan jasotako iritzien emaitzak batuta.



A. OINEZKOEN MUGIKORTASUNA

Haizea-Deloitte taldearen Hasierako proposamen teknikoa eta Foroak berrikustea beharrezkotzat jotzen dituen alderdi kritikoak	Gaur aurkeztutako udal gobernu taldearen proposamena	Foroak tailerrean emandako iritzia: Ados daude udal gobernu taldearen proposamenarekin edo ideiarekin ² ?
4. Itxaropen auzora doazen botika ondoko eskailerak.	- Igogailua jartzea proposatu da.	% 79, Bai % 11, Ez % 8, zalantzan % 2, ez du erantzun Oharrak: [Ez]- Badago Itxaropen auzora igotzeko igogailua. [Zalantzak] – Badago igogailua; konpondu. Beste lehentasunak daude.
5. Espaloia “Bodega Riojana”ren eta Juanastegi kalearen artean.	- Oso ondo baloratzen dugu espaloia zabaltzeko eta bidegorria mantentzeko egin den proposamen tekniko integrala. - Landaresia kentzearena baloratzea proposatu dugu.	% 82, Bai % 6, Ez % 6, zalantzan % 6, ez du erantzun [Zalantzak] – upategitik 40. zenbakiraino. Beste aldapa makurra da eta inor ez da espaloitik joaten.
6. Urretxutik dagoen bidegorriaren lotura, justu suhiltzaileen parkea baino lehen.	- Zaldutik Santikutz kalera (Mirasol) joango den oinezkoentzako eta bizikletarientzako bidegorria egokitzea proposatu da.	% 73, Bai % 8, Ez % 15, zalantzan % 4, ez du erantzun [Zalantzak] – Hobe zuzen jarraitzea, fabrikaren atzealdetik
7. Oinezkoentzako sarbidea Olaberrian.	- Ez dira aukerak ikusten Goiko Izarra etxera joateko bidea hobetzeko; aukera bakarra eskualdeko errepidetik sartzea da	% 56, Bai % 10, Ez % 23, zalantzan % 12, ez du erantzun



A. OINEZKOEN MUGIKORTASUNA

Haizea-Deloitte taldearen Hasierako proposamen teknikoa eta Foroak berrikustea beharrezkotzat jotzen dituen alderdi kritikoak	Gaur aurkeztutako udal gobernu taldearen proposamena	Foroak tailerrean emandako iritzia: Ados daude udal gobernu taldearen proposamenarekin edo ideiarekin ² ?
8. Kultur etxearen ingurua: pibota jartzea eta oinezkoentzako egokitzea.	- Oso ondo baloratu da proposamen teknikoa; hori egin aurretik beste aukera bat bilatu beharko da kentzen diren 34 aparkalekuentzako –horietako 2 minusbaliatuentzako plazak dira–.	% 48, Bai % 25, Ez % 15, zalantzan % 12, ez du erantzun Oharrak: [Ez] – aparkaleku falta
9. Oinezkoentzako sarbidea Motxorro-Pastain-Brinkola bide tartean.	- Ez da bideragarria ikusten gaur egun oinezkoentzako eta bizikletarietarako bidea egokitzea eskualdeko errepidean. - Pastain baserrira arteko bidegorriaren alde egiten dugu.	% 33, Bai % 38, Ez % 19, zalantzan % 10, ez du erantzun Oharrak: – Oso arriskutsua
10. Telleriarteko San Juan ermitara arteko bidea trafikorik gabe.	- Bizilagunekin kontrastatu beharreko neurria. Aukera ikusten dugu San Juan ermita parean pibota jartzeko, Telleriartetik eta Brinkolatik sartzeko. Bertan bizi direnek aukera izango lukete Telleriartetik edo Brinkolatik sartzeko.	% 50, Bai % 21, Ez % 15, zalantzan % 14, ez du erantzun Oharrak: [Ez] – Ez da beharrezkoa
11. Erreizabal baserrian, oinezkoentzako sarbidea gaztaren museora joateko.	- Ez dira aukerak ikusten oinezkoentzako sarbidea jartzeko.	% 33, Bai % 33, Ez % 23, zalantzan % 12, ez du erantzun Oharrak: - zergatik ez bere lursailetatik?

OHARRA: A todo lo anterior sumamos una anotación individual de un formulario, que solicita revisar el estado de las aceras por estar resbaladizas.



B. BIZIKLETARIEN MUGIKORTASUNA

Haizea-Deloitte taldearen Hasierako proposamen tekniko a eta Foroak berrikustea beharrezkotzat jotzen dituen alderdi kritikoak	Gaur aurkeztutako udal gobernu taldearen proposamena	Foroak tailerrean emandako iritzia : Ados daude udal gobernu taldearen proposamenarekin edo ideiarekin ³ ?
1. Juanastegi kalea.	- Berdegunean bidegorria egitea proposatu du eta San Ignazio auzora oinezkoen pasabide berritik jarraipena eman.	<p>% 65, Bai % 10, Ez % 17, zalantzan % 8, ez du erantzun</p> <p>Oharrak: [Ez] – Badago bidegorria. – Goian institutua dagoela kontuan hartuta, ez dut uste neska-mutikoez bizikletarekin galtzatik jaitsi behar dutenik. [Bai] – Ezkerraldeetik. – Baina ez da gora joateko bidegorria errespetatuko. – Ezkerraldeetik. [Zalantzak] – ibilgailuen bi noranzkoetara itzuli. – Autoak eta patineteak elkarrekin, arriskutsua.</p>
2. Laubide auzora igotzeko errotonda.	- Bidegorriari zirkulazioaren kontrako noranzkoan eta espaloi ondotik jarraipena ematea proposatu da – eskuinaldean edo ezkerrean jartzea da zalantza-.	<p>% 52, Bai % 9, Ez % 31, zalantzan % 8, ez du erantzun</p> <p>[Zalantzak] – Lanaren hiribidea kalerako hartuko den irtenbidearen arabera.</p>
3. Lotura Lanaren hiribidea kalearekin: sakagailua izango duen semaforoa jartzea.	- Zaldutik Santikutz kalera (Mirasol) joango den oinezkoentzako eta bizikletarietarako bidegorria egokitzea proposatu da	<p>% 52, Bai % 21, Ez % 21, zalantzan % 6, ez du erantzun</p>

³ Jaso diren betetako 52 galdetegiaren jasotako iritzien emaitzak batuta.



B. BIZIKLETARIEN MUGIKORTASUNA

<p>Haizea-Deloitte taldearen Hasierako proposamen teknikoa eta Foroak berrikustea beharrezkotzat jotzen dituen alderdi kritikoak</p>	<p>Gaur aurkeztutako udal gobernu taldearen proposamena</p>	<p>Foroak tailerrean emandako iritzia: Ados daude udal gobernu taldearen proposamenarekin edo ideiarekin³?</p>
<p>4. Erreka ondoan joango den bizikletentzako bidea jartzea.</p>	<p>- Ez da beharrezkoa ikusten bizikletentzako bidea.</p>	<p>% 63, Bai % 15, Ez % 10, zalantzan % 12, ez du erantzun</p>



C. IBILGAILU PRIBATUA

Haizea-Deloitte taldearen Hasierako proposamen teknikoa eta Foroak berrikustea beharrezkotzat jotzen dituen alderdi kritikoak	Gaur aurkeztutako udal gobernu taldearen proposamena	Foroak tailerrean emandako iritzia: Ados daude udal gobernu taldearen proposamenarekin edo ideiarekin ⁴ ?
1. San Ignazio: zirkulazioaren bi noranzkoa San Ignazio auzoko igoera osoan.		% 69, Bai % 6, Ez % 8, zalantzan % 17, ez du erantzun
2. San Ignazio: San Ignazio 24-34 atarien bide tartean bi noranzkoa jartzea.	- Gobernu taldea ez dator bat horrekin, aparkaleku asko galduko liratekeelako.	% 35, Bai % 27, Ez % 21, zalantzan % 17, ez du erantzun Oharrak: [Zalantzak] – 2 sarrerak 2 noranzkoetan.
3. San Ignazio: San Ignazio 41-37rako sarbidea kentzea	- Zalantzan jartzen da igotzeko sarbidea kentzea.	% 27, Bai % 25, Ez % 31, zalantzan % 17, ez du erantzun Oharrak: – Eremu osoa egokitu behar da. Laubide auzotik datozen oinezkoek ez ditzatela eskailerak izan (arrapalak). – Igotzeko noranzkoa markatu
4. Arantzazu 20: zirkulazioaren noranzko bakarra jartzea eta etxe sindikalera igotzeko aukera kentzea.	- Zalantzan jartzen da; San Ignazio auzora igotzeko aukera hori kenduz gero, areagotu egingo delako trafikoa Arantzazu-San Jose auzoetan Murura joateko eta hor handia da trafikoa Laubidetik Juanastegira joateko.	% 23, Bai % 19, Ez % 41, zalantzan % 17, ez du erantzun

⁴ Jaso diren betetako 52 galdetegietan jasotako iritzien emaitzak batuta.



C. IBILGAILU PRIBATUA

Haizea-Deloitte taldearen Hasierako proposamen teknikoa eta Foroak berrikustea beharrezkotzat jotzen dituen alderdi kritikoak	Gaur aurkeztutako udal gobernu taldearen proposamena	Foroak tailerrean emandako iritzia: Ados daude udal gobernu taldearen proposamenarekin edo ideiarekin ⁴ ?
5. Lanaren hiribidea: noranzko bakarrekoa izatea.	- Ez da argi ikusten kale hori noranzko bakarrekoa izatearena.	% 35, Bai % 25, Ez % 30, zalantzan % 10, ez du erantzun Oharrak: [Bai] – Ez dut bideragarria ikusten kamioi asko ibiliko liratekeelako. – Trafiko astuna Urola kooperatibara.
6. Plazaola kalean noranzkoa aldatzea; aurrerantzean noranzko bakarra udaletxeko aparkalekutik saihasbidera irtetzeko.	- Ez da bideragarri ikusten.	% 56, Bai % 21, Ez % 10, zalantzan % 13, ez du erantzun
7. Txorroneako bidegurutzea.	- 3 semaforo jartzea proposatu da; lehentasuna Aizkorri kaleko oinezkoak eta bizikletariak izango lukete.	% 63, Bai % 12, Ez % 12, zalantzan % 13, ez du erantzun Oharrak: [Ez] – errotonda txiki bat egin. [Zalantzan] – Ez du errotonda jartzeko ematen (autobusak...). Oinezkoen pasabidea lekuz aldatu. – Oinezkoen pasabide gehiago jarri eta Stop seinalea jaitsi. Ez jarri semaforoak.
8- Aizkorri kalea: bira egitea debekatzea.	- Gobernu taldea ez dago ados.	% 56, Bai % 25, Ez % 4, zalantzan % 15, ez du erantzun



D. APARKALEKUAK

Haizea-Deloitte taldearen Hasierako proposamen teknikoa eta Foroak berrikustea beharrezkotzat jotzen dituen alderdi kritikoak	Gaur aurkeztutako udal gobernu taldearen proposamena	Foroak tailerrean emandako iritzia: Ados daude udal gobernu taldearen proposamenarekin edo ideiarekin ⁵ ?
1. Latxartegin azaleko aparkalekua berrantolatzea.	- Zonalde horretan pibota aldatu dela eta eremua oinezkoentzako egokitu dela kontuan hartuz, aparkaleku bat eraikitzea osagarria izango litzateke.	% 38, Bai % 15, Ez % 13, zalantzan % 33, ez du erantzun
2. Plazaolan TAO eremua handitzea.	- TAO doan, orain arte bezala baina gehienezko denbora 2 ordu (9:00etatik 21:00etara).	% 65, Bai % 12, Ez % 2, zalantzan % 21, ez du erantzun
3. Zamalanak: merkataritza-eta ostalaritza-guneetan zamalanak erraztea.	- Proposamen teknikoarekin ados.	% 60, Bai % 8, Ez % 2, zalantzan % 31, ez du erantzun
4. Fiskalitatea.	- Trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zerga berria sortu, ibilgailuen gas-aireratzearen arabera.	% 46, Bai % 15, Ez % 14, zalantzan % 25, ez du erantzun
5. Paper-fabrikako aparkalekua handitzea eta berrantolatzea.	- Ez datoz proposamenarekin bat, urbanizagarria den eremu batean kokatutako behin-behineko aparkalekua delako. Alokairu-hitzarmena 2019ko bukaera arte dago indarrean edo eremuaren garapen urbanistikoa egin arte.	% 52, Bai % 13, Ez % 2, zalantzan % 33, ez du erantzun
6. Industrialdea: Azpikoetxen pasabidea egokitzea.	- Ideiarekin ados eta lantzen ari da gaia.	% 52, Bai % 8, Ez % 7, zalantzan % 33, ez du erantzun

⁵ Jaso diren betetako 52 galdetegietan jasotako iritzien emaitzak batuta.



D. APARKALEKUAK

Haizea-Deloitte taldearen Hasierako proposamen teknikoa eta Foroak berrikustea beharrezkotzat jotzen dituen alderdi kritikoak	Gaur aurkeztutako udal gobernu taldearen proposamena	Foroak tailerrean emandako iritzia: Ados daude udal gobernu taldearen proposamenarekin edo ideiarekin ⁵ ?
7- Paper-fabrikako aparkalekuaren ordainketa.	<ul style="list-style-type: none"> - Udal tasak udal zerbitzu bat jasotzen dutenek zerbitzu hori ordain dezaten jartzen dira, eskainitako zerbitzuaren kostuei aurre egiteko. - Udalak Legazpiko langileei ematen die hobaria, zergak Legazpin ordaintzen dituztenei. 	% 21, Bai % 17, Ez % 6, zalantzan % 56, ez du erantzun
8- Egoiliarrentzako gaueko aparkalekua hobetzea: Latxartegin lurpeko aparkalekua eraikitzea.	<ul style="list-style-type: none"> - Aparkalekua eraikitzea 2007ko Hiri-antolamenduko Plan Nagusian onartutako eta aurreko mugikortasun-planean jasotako proposamena da. 	% 27, Bai % 29, Ez % 8, zalantzan % 37, ez du erantzun
9- Egoiliarrentzako gaueko aparkalekua hobetzea: Itxaropen auzoan aparkaleku-poltsak handitzea.	<ul style="list-style-type: none"> - Ez datoz proposamenarekin bat, udal jabegokoa ez den lurzoruan kokatutako behin-behineko aparkalekua delako. 	% 50, Bai % 6, Ez % 10, zalantzan % 34, ez du erantzun
10- Egoiliarrentzako gaueko aparkalekua hobetzea: Laubide auzoan aparkaleku-poltsak handitzea.	<ul style="list-style-type: none"> - Bat datoz ideiarekin eta lantzen ari dira gaia. 	% 54, Bai % 4, Ez % 6, zalantzan % 36, ez du erantzun Oharrak: – Arazo bat sortu da zegoen aparkalekua itxi ondoren. Oso beharrezkoa da.
11- Egoiliarrentzako gaueko aparkalekua hobetzea: Foroaren proposamena Kultur etxearen ondoan 5-6 plaza egokitzek, berdegunea kenduz.	<ul style="list-style-type: none"> - Arlo teknikoko zalantzak daude. 	% 31, Bai % 27, Ez % 6, zalantzan % 36%, ez du erantzun

Parte hartu duten pertsonekin solas egiteko denbora: entzundakoa entzunda, zer da oraindik ere sakonago aztertu behar dena?

Udal gobernu batzordearen proposamena aurkeztu ondoren, taldeak esku hartzeko eta eztabaidatzeko izan duen tartean **sakonago aztertu beharreko alderdiak identifikatu eta jaso dira, proposatutako irtenbideek konbentzitu ez dutelako.**

Hauek dira alderdi horiek:

Trafikoaren antolamendua:

– Txorroneako bidegurutzea.

Egungo arazoa gunehorretan sortzen den arriskua da, bertan elkartzen baitira autoak, bizikletak eta oinezkoak. Eta batik bat gaztetxetik behera doazen autoek ez dute ondo ikusten bizikletarien eta oinezkoen igarobidea.

3 aukera ikusten dira –bakoitza bere argiune eta itzalguneekin–:

- Zapaldu daitekeen errotonda bat –osterantzean, neurriek ez dut autobusek maniobratzeko aukerarik ematen–.
- Semaforoak eta Gaztetxetik behera datozen autoek ezkerrean, Plazaola aldera, biratzeko debekua.
- Semaforoak eta Gaztetxetik beherako aldapen dauden stop seinalearen eta oinezkoen pasabidearen kokalekuak aldatuz, ikuseremua hobetzeko eta arrisku-egoerak saihesteko.

Edozelan ere, zonaldean udaltzainen presentzia handiagoa eskatzen da, segurtasuna eta bide-araudia betetzen dela bermatzeko.

– Arantzazu 20 eta San Ignazio auzora joateko sarbidea eta zirkulazioa.

San Ignazio auzora Pioko aldatatik igotzea onartzea egokia den eztabaidatu da – aurreko mugikortasun planean Zaldutik sartzea aurreikusi zelako baina hori ez da gauzatu –.

Argi geratu da San Ignazio auzoko 41-37 zenbakidun etxeetara iristeko modu egokiena eta zirkulazioaren noranzko hoberena zein den aztertu beharra dagoela. Horrela, bertako bizilagun batzuk etxera autoz joateko gaur egun udalerrri osoa zeharkatu behar dutela esan dute eta ibilbideak murriztea eskatu dute, kutsadura ere murriztuz. Aldiz, beste batzuk uste dute neurri hori hartzeak auzoan hirukoiztu egingo duela trafikoa.

– Lanaren hiribidea.

Kaleak bi noranzkoa izan behar duen eztabaidatu da.

Pertsona batzuk Olaondotik San Ignazio auzora joateko aukera izatea defendatzen dute. Beste batzuk, aldiz, bi noranzkoa akats handia dela uste dute, aurreko mugikortasun iraunkorraren planean zehaztutako trafikoaren eskemarekiko koherentzia galtzea izango litzatekeelako.

– Astiro azertu beharreko beste 2 proposamen.

- Santikutz kaleko noranzkoa aldatzea. Era berean, udaltzainburuak kale horretan noranzkoa aldatzeak bide-eskema osoa erabat aldatzea ekarriko lukeela esan du eta horrek beste aldaketa asko ekarriko lituzke bideetan, markesinak,...
- Aizkorri kalean gaur egun zamalanak egiteko dagoen eremua ez da erabiltzen –lan hori egiten duten ibilgailuek Aizkorri kalean geratzen dira-. Pibotak jartzea irtenbidea izan daiteke?
- Aizkorri kaleko eremu horretan garaje baten irteera dago eta ikuseremua ez da batere ona –ispilu bat dago baina horrek ez du ondo ikustea bermatzen-.

– Filosofiari eta planaren helburuari buruz.

- Trafikoaren antolamenduan egingo diren aldaketak (noranzkoak aldatzea, bi noranzkoak jartzea,...) filosofía batekin eta printzipio batzuekin bat etorrita planteatu behar dira. 2008ko planean herri barruko joan-etorrietarako autoaren erabilera murriztearen aldeko apustua egin zen eta joan-etorri horiek oinez eta bizikletan egitea bultzatzea zen helburua. Orain ikuspuntu hori aldatzen bada, koherenteak izan behar dugu defendatzen dugunarekin eta benetan mugikortasun iraunkorra sustatzen duen plana den azertu behar dugu.

Aparkalekuak:

- Aparkalekuak kentzen diren heinean beste aukera batzuk bilatu beharra. Gai horrek udal mailako hausnarketa sakona eskatzen du, gaur egun dauden aparkaleku gehienak ez direlako udalarenak eta behin-behinekoak direlako.

Taldea kezkatuta dago aparkatzeko beste aukerak izan gabe, poliki-poliki aparkalekuak galtzen ari direlako. “Hiletaren bat dagoenean, ezinezkoa da herrigunean aparkatzea”.

Eta azertzeko proposamen bat egin da: Musika eskolaren atzealdean aparkaleku bat egokitzea.

Bizikletarien mugikortasuna:

- Eskaera: Txorroneatik kiroldegira doan bidegorria osatzea. Egun zailtasun handiena Aizkorri kalean dago, galtzadan pintatuta dagoen bidegorria erabiltzen ez delako.

Galtzadatik aparte bidegorri bat egokitzeko aukera aztertzea proposatu da, horretarako espaloia erabiliz eta hiri-altzariak arkupe aldean jarriz; horrela eginez gero, kota desberdinak izatearen arazoa konponduko litzateke.


Oinezkoen mugikortasuna:

- San Ignazio 41-37: ez da espaloia erabiltzen, oinezkoek egin behar duten kurba oso itxia delako. Aukera bat izango litzateke eskailerak kentzea eta arrapala jartzea (erosketak egiteko orgekin ibiltzea erraztuko litzateke).

Beste gai batzuk:

- Eskaera: Santikutz 8ko garajeetarako sarbidea aztertzea.

Bizilagunek egoera horri berrikustea eskatzen diote Udalari –ongi ezagutzen dute gaia udaletxean-, ez baita logikoa oinezkoen pasabide librea egotea garajeetara sartzeko pasabidean.



Dena jaso ondoren, esandakotik sakonago aztertzea komeni diren gaiak trafikoaren antolamenduari eta aparkalekuekin lotutako gaiak direla esan daiteke. Osterantzean, oinezkoen eta bizikletarien mugikortasunarekin zerikusia duten gaiak argiago daudela dirudi.

Gaur, **Agenda 21eko Foroak, Legazpiko mugikortasun iraunkorraren plana eguneratzeko prozesuari ekarpen baliotsua egin diola** uste dugu.

Eskerrik asko guztiei!

5. ETA BUKATZEKO, BI OHAR LABUR

Inma Hernandez Udaleko industria, merkataritza, turismo eta ingurumen teknikariak honako bi ohar partekatu ditu taldearekin:

- abenduaren 4an, 18:30ean, **energiari buruzko prestakuntza-saioa**.

Energiaren kontsumoak ezagutu nahi duenak edo tarifa elektrikoa dezifratzen ikasi nahi duenak,... bihartik aurrera eman ahal izango du izena.

- **Energia aholkularitza jasotzeko doako Zerbitzua**, Uggasak eskainia.

Ostiralero udaletxean, 10:00etatik 12:00etara, aholkularitza teknikoa jaso ahal izango da gai desberdinei buruz: galdara aldatzeko aholkua, etxean energiaren kontsumoa murrizteko aholkuak,....

6. ESKERRIK ASKO!

Agenda 21eko Foroaren hurrengo tailerra: 2017ko abenduaren 14an.

Ordura arte, **eskerrik asko guztiei!**